



320/2019 Ebazpena, maiatzaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideen zuzendariarena. Horren bidez agintzen da argitaratu behar direla Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrian 1 eta 2 Lehentasunetako 2018ko Aldi baterako kontratazio-zerrenda eguneratuak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda (LMATko FE Familiako medikuen eta LMATko FE Pediatriako medikuena izan ezik).

Aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa) –Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak emandako Erabakia–.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak maiatzaren 28an emandako 1135/2015 Ebazpenaren bidez (EHAA, 102 zk., 2015eko ekainaren 3koa), onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko 2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak.

2018ko irailaren 27ko 707/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak emandakoa, ireki zen 2018ko Aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko epea 2018ko urriaren 5etik 31ra, 2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako kategorietan.

Behin zerrendok ordenatuta, kontuan hartuta horiek sortzeko irizpideak –2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren laugarren atalean zehaztutakoak–,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko agintzea 2018ko Aldi baterako behin-behineko kontratazio-zerrenda eguneratuak, lanpostu hutsen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan, 2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako kategorietan, izan ezik LMATko FE Familiako medikuen eta LMATko FE Pediatriako medikuen kategorietan.

Zerrenda horiek 2019ko maiatzaren 8an indarrean sartuko dira.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa ezarri dakioko Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariari. Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango da, ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 7an


María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: María Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD